

KOSTU EGITURA

Gure enpresarekin izango ditugun kostu garrantzitsuenak kostu finkoak izango dira. Ematen dugun zerbitzuarekin ez baitira aldaketak emango kostuari dagokionez. Bestetik esan, gure negozio-ereduak funtzionatuko duela duen kalitate maila handiagatik.

Kostu finkoetan sar genitzake, Baserri Haur Eskola eraikina bera eta bere mantenua, inguruko lur sailak, baserriko lanabes ezberdinak (aitzurra, karretila, eskuarea, otarrak, etab.), langileen soldata, abereak eta bere mantenua (pentsua, albaitaria etab.), argindarra eta ura. Kostu aldagarrietan izango genituzke, garraio kostua, jangela kostua, eskola materiala, etab.